8/2025 EBAZPENA

Espedientea: RMT 8/2025

BATZORDEBURUA: María Eugenia Maté Mendieta

KIDEA: Nerea García Rodríguez

IDAZKARIA: Unai Aberasturi Cantera

informazio publikoa eskuratzeko eskaera onartzen ez duen Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 985/2025 Ebazpenaren aurka erreklamazioa jarri du; Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Arloko Erreklamazio Batzordeak **EBAZPEN** hau eman du horretaz. María Eugenia Maté Mendieta andreak jardun du hizlari, eta Batzordearen iritzia adierazi du:

RESOLUCIÓN 8/2025

Expediente: RMT 8/2025

PRESIDENTA: María Eugenia Maté Mendieta

VOCAL: Nerea García Rodríguez

SECRETARIO: Unai Aberasturi Cantera

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por contra la Resolución 985/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Desarrollo Territorial, por la que se inadmite a trámite la solicitud de acceso a la información pública. Actúa como ponente María Eugenia Maté Mendieta, quien expresa el parecer de la Comisión

## AURREKARIAK

1.- 2025eko urriaren 16an informazio publikoa eskuratzeko eskaera hau aurkeztu zion Bizkaiko Foru Aldundiari:

## ANTECEDENTES DE HECHO

1.- En fecha 16 de octubre de 2025 presentó la siguiente solicitud de acceso a información pública, dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia:

*"POR FAVOR SOLICITO TODA LA INFORMACION DETALLADA SOBRE – han derivado en la planificación de ¿cambios mínimos? En ¿bordillos, peraltes y una redistribución de los espacios? que permitirán un ¿leve incremento en las cotas? EN EL BOULEVARD A SU PASO POR ERANDIO, QUE HAN SALIDO DE LAS REUNIONES CON AYUNTAMIENTO DE ERANDIO, DIPUTACION Y URA, Y SE HAN EXPLICADO EN JUNTAS GENERALES.*
*TODAS LAS modificaciones DETALLADAS QUE se planteaN, tanto en el proyecto del bulevar como en la carretera BI-711. Alzaga ha citado diversos estudios para desvincular el proyecto de las inundaciones ocurridas en marzo de 2024. SE SOLICITA COPIA DE TODOS LOS ESTUDIOS QUE AL PARECER SON VARIOS (TODOS) QUE DESVINCULAN EL PROYECTO DE LAS INUNDACIONES Y QUIENES SON LOS FIRMANTES.*
*El diputado ha mencionado la existencia de un grupo de trabajo interinstitucional creado para abordar la gestión del riesgo de inundación y la adaptación al cambio climático en el País Vasco, señalando que la Diputación Foral de Bizkaia no figura en dicho grupo.*
*COMO EL DIPUTADO TIENE CONOCIMIENTO DE LA EXISTENCIA DE UN GRUPO DE TRABAJO, QUIENES SON LOS COMPONENTES DEL MENCIONADO GRUPO DE TRABAJO. GRACIAS".*

2.-. Lurralde Garapeneko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 985/2025 Ebazpenaren bidez, eskaera ez zen onartu, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22 artikuluan oinarrituta, esanez:

*"… eskatutako informazioa errepikakorra dela eta lehenago eman dela Lurralde Garapeneko zuzendari nagusiaren Ebazpenen bidez (ekainaren 5eko 00600/2024 Errege Dekretua [sic] eta urriaren 2ko 00860/2025 Errege Dekretua [sic]). Ebazpen horiek behar bezala jakinarazi zitzaizkion interesdunari 2024ko ekainaren 14an eta 2025eko urriaren 2an, hurrenez hurren..*

*Aipatutako erakunde-lantaldea ez da Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren eskumena.*

2.- Por Resolución 985/2025, de 3 de noviembre, del director general de Desarrollo Territorial, se inadmitió la solicitud basándose en el artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, indicándose:

*"… la información solicitada es reiterativa y ha sido facilitada con anterioridad mediante Resoluciones del director general de Desarrollo Territorial RD 00600/2024, de 5 de junio y RD 00860/2025, de 2 de otubre, resoluciones debidamente notificadas al interesado en fecha 14 de junio de 2024 y 2 de octubre de 2025, respectivamente.*

*El grupo de trabajo institucional mencionado no es competencia del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial".*

3.- Aurreko Ebazpenaren aurka Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan 2025eko azaroaren 4an gardentasunaren arloko erreklamazioa aurkeztu zuen. Idazkia Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzorde honetan jaso zen eta 8/25 zenbakia esleitu zitzaion.

3.- Contra dicha Resolución, presentó el día 4 de noviembre de 2025, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, reclamación en materia de transparencia. El escrito se recibió en esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, que le asignó el número 8/25.

4.- Erreklamazioaren arrazoietan honako hau adierazten da:

4.- En la motivación de la reclamación se indica lo siguiente:

*"expediente 202502000001999085 SOLICITO LA INFORMACION PEDIDA SOBRE la existencia de un grupo de trabajo interinstitucional creado para abordar la gestión del riesgo de inundación y la adaptación al cambio climático en el País Vasco GRACIAS".*

5.- Batzorde horrek egindako erreklamazioaren edukiari buruzko txostena eskatu zion Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailari, eta Azpiegiturak Garatzeko Zuzendariordeak honako hau jakinarazi du:

*"2025eko azaroaren 3ko 985/2025 Ebazpenean aipatutako taldea IHOBEren (Eusko Jaurlaritza) ekimena den lantalde bati (KAIA) buruzkoa da.*

*Beraz, Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailak*

5.- Esta Comisión solicitó al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, informe en relación con el contenido de la reclamación formulada y la Subdirección de Desarrollo de Infraestructuras ha informado además lo siguiente:

*"El grupo mencionado en la Resolución 985/2025 de 3 de noviembre de 2025, se refiere a un grupo de Trabajo (KAIA) que es iniciativa de IHOBE (Gobierno Vasco).*

*Por lo tanto, el Departamento de*

*ez du eskumenik estatutako informazioa emateko, eta, beraz, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2013 Foru Arauaren 22 d) artikuluan adierazitakoa aplikatuko litzateke.*

*Nolanahi ere, aipatutako taldeari buruz aurkitutako informazioa partekatzen da, eta jendearen eskura dago esteka honetan:*

*[https://www.ikekia.euskadi.eus/es/news/105534-ihobe-suma-dia]-internacional-contra-cambio-climatico-destacando-sus-proyectos-adaptacion-iniciativa-kaia".*

*Infraestructuras y Desarrollo Territorial no es competente para dar la información solicitada, por lo que sería de aplicación lo señalado en el artículo 22 d) de la NF 1/2016 de 17 de febrero de Transparencia de Bizkaia.*

*En cualquier caso, se comparte la información encontrada sobre el citado grupo y que está a disposición del público en el siguiente enlace:*

*[https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/105534-ihobe-suma-dia]-internacional-contra-cambio-climatico-destacando-sus-proyectos-adaptacion-iniciativa-kaia".*

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

Foru Arau horren 29.1.1. artikuluaren arabera, 2. artikuluarekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: *"a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."*

Bigarrena. Instantzia honetan,

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *"a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."*

Segundo. En la presente instancia el

erreklamaziogileak bere garaian Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari aurkeztutako informazio-eskaera errepikatu besterik ez du egiten, erreklamazioaren oinarri izan zitekeen arau-agindurik aipatu gabe.

reclamante se limita a reiterar la solicitud de información formulada en su día ante el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, sin referencia a precepto normativo alguno que pudiera sustentar la reclamación.

Hirugarrena. Lehen aipatutako otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak 18.1. artikuluan aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, Foru Arau beraren 17.2 artikuluaren arabera, honako hau da: *(…) foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (…)".*

Tercero. La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, precitada reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: *"( … ) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones".*

Beraz, arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera publikoarekin lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) foru-arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

Por tanto, la norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de ésta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "*pública*": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

Laugarrena. Kasu honetan, Aldunditik kanpoko lantalde bati buruzko informazioa eskatzen da, Ihobe Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoaren ekimen baten ondorio baita, eta horrek erreklamazioa ezestera garamatza.

Cuarto. En este caso se solicita información sobre un grupo de trabajo ajeno a esta Diputación ya que obedece a una iniciativa de Ihobe, sociedad pública del Gobierno Vasco, lo que nos lleva a desestimar la reclamación.

Bosgarrena. Azpiegituren Garapeneko Zuzendariordetzaren txostenean adierazitakoaz bestela, ez da aplikatu behar 1/2016 Foru Arauaren 22 d) artikuluan aurreikusitakoa; izan ere, artikulu horrek ez onartzeko arrazoitzat jotzen du informazio publikoaren eskaeraren xede den organoak informazio hori ez izatea eta eskuduna zein den ez jakitea, bigarren baldintza hori ez baita betetzen aztertzen ari garen kasuan.

Quinto. Contrariamente a lo que señala el informe de la Subdirección de Desarrollo de Infraestructuras no resulta de aplicación lo previsto en el artículo 22 d) de la Norma Foral 1/2016, que contempla como causa de inadmisión que el órgano al que se dirige la solicitud de información pública no disponga de la misma y desconozca cuál es el competente, ya que este segundo requisito no concurre en el supuesto que nos ocupa.

Bidezkoa zatekeen eskaera Eusko Jaurlaritzari helaraztea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta interesdunari inguruabar hori jakinaraztea.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek, transkribatu dugun ebazpenean hartutako irizpidea errepikatuz, honako hau erabaki du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saileko Lurralde Garapeneko zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 985/2025 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa ezestea, laugarren oinarrian adierazitako baldintzetan.

BIGARRENA. Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Saileko Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari eskatzea eskaera Eusko Jaurlaritzari helaraz diezaiola, aurreko bosgarren oinarriarekin bat etorriz.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau errekurtsogileari jakinaraztea eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiari eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamendu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.

LAUGARRENA. Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salan, jakinarazpena egiten denetik eta bi (2) hilabeteko epearen barruan.

Lo procedente hubiera sido dar traslado de la solicitud al Gobierno Vasco al amparo de lo previsto en el artículo 14.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, notificando dicha circunstancia al interesado.

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, reiterándose en el criterio adoptado en la resolución que hemos transcrito, acuerda:

RESOLUCIÓN

PRIMERO. Desestimar la reclamación promovida por , contra la Resolución 985/2025, de 3 de noviembre, del Director General de Desarrollo Territorial del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, en los términos señalados en el fundamento cuarto.

SEGUNDO. Requerir a la Dirección General de Desarrollo Territorial del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia para que dé traslado de la solicitud del al Gobierno Vasco, de conformidad con el precedente fundamento quinto.

TERCERO. Notificar esta resolución a la persona recurrente y comunicarla a la Dirección General de Desarrollo Territorial del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

CUARTO. La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos (2) meses a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Sin./Fdo.: NEREA GARCIA RODRIGUEZ - 2025-12-29
Batzordekide titularra
Vocal titular

Sin./Fdo.: UNAI ABERASTURI CANTERA - 2025-12-29
Idazkaria
El Secretario

Sin./Fdo.: MARIA EUGENIA MATE MENDIETA - 2025-12-29
Presidentea
La Presidenta